

HABE eta EALTaren sinposioa: ebaluazioan eta hizkuntza-probetan jokabide egokiak sustatzeko gida-lerroak

HABEk "Ebaluazioan eta hizkuntza-probetan jokabide egokiak sustatzeko gida-lerroak – EALTaren ekarpena" sinposioa eratu du, EALTarekin batera. Ekitaldia 2009ko azaroaren 13an izango da, 09:00etatik 17:00etara, Donostiako Teknologi Elkartegiko Auditorioan (Mikeletegi pasealekua).

HABEk, EALTA Hizkuntza-probetarako eta Hizkuntzak Ebaluatzeko Europako Elkartearekin batera, "Ebaluazioan eta hizkuntza-probetan jokabide egokiak sustatzeko gida-lerroak – EALTaren ekarpena" sinposioa antolatu du. Ekitaldia 2009ko azaroaren 13an egingo da, 09:00etatik 17:00etara, Donostiako Teknologi Elkartegiko Auditorioan (Mikeletegi pasealekua, 53).

Egun beteko saioa izango da. Egitarauan ageri den modura, goizean hiru ponentzia aurkeztuko dira; eta bazkal ondoan, eztabaida-taldeen eta mahai-inguru baten bidez garatuko dira lan-ideia nagusiak.

Sinposio hau HABEren sarean azterketagintzan, kurrikulu mailak egiaztatze zereginetan (bateratze-saioetan hezitzaile, aztertzaile, antolatzaile) dabilen ororentzat izango da, baita euskara-agiriak baliokidetzeko prozesuan aritu ziren erakundeentzat ere.

Sinposio honen bidez, EALTaren ebaluazio eta hizkuntza-proben gida-lerroak zertan diren helarazi nahi zaio horretan diharduen komunitateari, eta gure artean darabilgun praktikaren inguruko hausnarketa bideratu eta jarduera egokitzeko bideak zein izan litezkeen aztertu.

Egitaraua

09:00 – 09:15 Irekiera-ekitaldia

09:15 – 10:15 Good Practice in Testing and School Assessment (Gudrun Erickson – Senior Lecturer of Language Didactics at University of Gothenburg —Sweeden— / Secretary/Treasurer of EALTA) (Aldi bereko itzulpena euskarara)

10:45 – 11:45 El Código de Buenas Prácticas de EALTA en Evaluación Certificativa de Segundas Lenguas en Europa (Neus Figueras – Generalitat de Catalunya - Departament d'Educació / Miembro y Expresidenta de EALTA)

12:00 – 13:00 HABEren egiaztatze-sistema EALTaren Gida-lerroen ikuspegitik (Justo Egaña, Aintzane Ibarzabal eta Josu Perales – HABE) (Aldi bereko itzulpena ingelesera)

15:00 – 15:45 Gida-lerroen Azterketa eta Eztabaida Hiru Taldetan

- A) Aztertzaileen formazioa (Dinamizazioa: HABE)
- B) Gelako ebaluazioa (Dinamizazioa: Gudrun Erickson)

C) Azterketen diseinua eta kudeaketa (Dinamizazioa: Neus Figueras)

16:00 – 17:00 Mahai-ingurua

Joanba Bergara (HABE – Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea. Donostia)

Guðrún Erickson (University of Gothenburg. Sweden)

Neus Figueras (Generalitat de Catalunya - Departament d'Educació. Barcelona)

Justo Egaña (HABE – Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea. Donostia)

Aintzane Ibarzabal (HABE – Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea. Donostia)

Josu Perales (HABE – Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea. Donostia)

EALTA: www.ealta.eu.org

EALTA hizkuntza aztertzaileentzat sortutako erakunde independentea da. Ebaluazioaren eta hizkuntza-proben oinarri teorikoen ulermena hobetzea du xede, eta printzipio horiek bideratzeko, berebat, praktika edo jokabide onak hobetu eta partekatu nahi ditu nazioarteko erakundeen nahiz ebaluazioaz arduratzen diren adituen edota erakundeen artean.

HABE erakundearen egitekoen artean, azpimarratzekoa da hizkuntzaren ebaluazioa eta mailen egiaztatzea, azken urteotan, eta bereziki, baliokidetzaren indarrean jarritzeko, indar handia hartzen joan dena. Egitasmo hori bermez eta kalitatez bete ahal izateko, ezinbestekoa da hizkuntza-proben diseinuan eta aplikazioan jokabide egokiak izatea. Horregatik jo zuen HABEk EALTara eta bertako kide egin zen 2007an.

EALTak bezala HABEk ere uste du hizkuntzen ebaluazioaren eta hizkuntza-proben kalitatea hobetzeko bidea nazioarteko lankidetzaren dela. Lankidetzaren horrek laguntza eta elkarrengandik ikasteko aukera eskainiko baitie ebaluazioaren arloan lanean ari diren pertsonen eta erakundeen, partaide bakoitzaren kultura ezaugarriak galdu gabe.